

Garapen komunitarioa enpresa ikuspegitik

Krisi sakonen testuinguruan, ekonomiari beste norabide eta zentzu bat emateko saiakerak gero eta ugariagoak dira. Bergarako Berrekin.Berregin programa eraldaketa soziala helburu duen ekintzailetasunerako formazio gunea izan da bi hilabetez.

| URKO APAOLAZA AVILA |

EKINTZAILETASUNA. Hitz usatu eta murtzikatu horrek zentzu oso diferentek izan ditzake testuingurua, subjektua eta, batez ere, helburua kontuan edukita. Ezin dira berdin ulertu norbere burua soilik lukratzeko *start-up* bat sortu duena edo komunitatearen premia bati aurre egiteko kooperatiba eratu duena.

“Badago ekintzailetasun on bat, eta beste bat tranpatia eta engainagarria dena”. Amalio Rey-ren hitzak dira, berrikuntza kolektiboaren arloan erreferentziatzeko aditua eta Emotools enpresaren sortzailea. Malagan bizi den kubatarra Bergaran izan da *Berrekin.Berregin* programan bere esperientzia kontatzen. Reyren ustez pertsona batzuek “desesperazioagatik” ekiten diote negozio berri bati, lana lortzeko edo lanez aldatzeko, beste batzuek ordea ekiten diote uste dutelako gizarteak bestelako irtenbideak behar dituela: “Ekintzailetasun sozialaren funtsezko helburua da jendarteak dituen arazoak konpontzea, ez dio zuzenean erantzuten enplegu bat lortzeko beharrari”.

Bergaran ekintzailetasun sozialaren inguruan jardun dira azken bizpahiru hilabeteotan, Bergarako Udalak, Olatukoop ekonomia sozial eta eraldatzailearen sareak eta Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak antolatutako formazio programan. Eragile anitzten esperientziak ezagutu ez ezik, eskualdeko beharrak identifikatu eta horiek gazteen motibazioarekin konektatzea izan du helburu programak: “Guk hasieratik argi

geneukan garapen komunitarioaren logikan kokatu behar genuela ikastaro hau, bertatik sortu zitezkeen ekimenak autoeraketaren paradigmara bilduz —dio koordinatzaile lanetan aritu den Lankiko Aritz Kanpandengik—. Hasieratik oso harrera ona izan du ikuspegi horrek”.

Hala, formazioaz gain hazitegi ere izan da Bergarako eta ikasleek zazpi proiektu marraztu dituzte. Orain, enpresa-ideia horiek martxan jartzea izango dute erronka nagusia, eta ondo bidean, eskualdean ekimen berriak jendarteratzeko balioko dute.

Ekintzailetasun soziala definitzeko orduan ez dago adostasunik, hainbat sentsibiltate biltzen dituen aterkia da

Ekintzailetasun sozialaren “aterkia”

Ekintzailetasun sozialaren inguruko teorizazioak ez dira herenegungoak. 90eko hamarkadan zenbait adituk gai horien inguruan azterlanak publikatu zituzten eta ekintzaile sozialak biltzen dituzten Ashoka moduko mundu sareak hedatzen hasi ziren. Garai haietan, esaterako, Jimmy Wales finantzariak ezagutza kolaboratiboan oinarritutako kode irekiko entziklopedia sortu zuen: Wikipedia.

Bistan da “ekintzailetasun soziala” kontzeptua definitzeko orduan gaur egun ez dagoela adostasunik. Kan-

pandegiren iritziz sentsibiltate ezberdinak biltzen dituen “aterkia” da: “Badira ‘sozial’ hori soilik marketing estrategia gisa erabiltzen dutenak; gure abiapuntua beste bat da eta ‘ekintzailetasun soziala’ gaur egun bizi ditugun gizarte erronken baitan kokatzen dugu, besteak beste erronka energetiko-ambientala eta gizarte orekatu eta justuagorako premia”.

Marko teoriko horretan guztian sakontzeko jende askoren esperientziak eta hausnarketak ezagutu ahal izan dituzte Bergarako ikasleek —dena 18 hizlari izan dira—. Horietako askoren iritziak programaren blogean (berrekinberregin.org) daude entzungai.

Kanpoko bisitak ere izan dituzte programan. Berrikuntza sozialaren bueltan Katalunian aitzindari diren Xarxa d’Economia Solidàriako Ruben Suriñachek eta EstArter-eko Alvaro Porrok erakunde komunita-



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com



Formazioa jasotzeaz gain, ikuspegi soziala duten ideia enpresarial berrien hazitegi ere izan dira Bergarako saioak.

rioek herrialde hartan duten eragina azaldu dute: “Esperimentaziorako espazioak dira, jendearen beharrak beste modu batean asetzeko egiturak eta sistemak sortzen dituzte, eta lortu dute jendarteko geruza zabalagoetara iragaztea”, dio Suriñachek.

“Canvas soziala” erreminta gisa

Berrekín. Berregin programaren helburua enpresa edo ekimen sozialak sortzeko habeak jartzea izaki, garrantzitsu beharreko erremintei garrantzia handia eman diete Bergaran egin diren saioetan: “Ikastaroan zehar behin eta berriz azalatu da galdera bat –dio Kanpandegik–: ekintzale-tasun sozialak tresna konkretuak behar ditu ala nahikoa da ‘ohiko’ enpresa-erremintak beste zentzu batez erabiltzea?”.

Lankiko kidearentzat seguruenik bi ikuspegiak izan litezke baliagarriak. Hala, erreminta propioak zein izan daitezkeen ezagutzeko parada izan dute parte-hartzaileek, tartean REAS (Red de Economía Solidaria) sareak sorturiko “Canvas soziala”.

Enpresa bat martxan jarri aurretik ekintzaileek negozioaren gakoak aurreikusteko metodo erraza da Canvas delakoa. Nolabait esateko: enpresa plan bat folio malgu batera ekarria. Metodo hori, baina, ikuspegi soziala emanez moldatu daiteke, eta proiektu berriak komunitatean izan ditza-keen eragin positibo eta negatiboak identifikatu daitezke. Iratxe Atxa Saiolan Enpresa eta Berrikuntza Zentroko kidea da: “Canvasa erre-minta sinoptiko bat da, modu oso batez ikus daitezke enpresa aktibitate

berri baten gakoak. Noiz erabili? Ideia zirriborro bat besterik ez dugu-nean; proiektua ondo landuta eduki-rik ere, laburrean aurkeztu nahi dugunean; edota jada martxan dago-en enpresa batek aberastasuna zein modutan sortzen duen zalantzan jarri nahi dugunean”.

Atxaren esanetan proiektu hasi berriei bete ezin duten epe motzeko bideragarritasun ekonomikoa exigi-tzen zaie askotan, kontutan eduki gabe hastapen horretan sortzen duten “abertasun soziala”.

Bergarako programatik aterata diren ideiak proiektu ekintzaileak eta sozialki jasagarriak izateko hazia jarrita dago, orain Kanpandegiren ustez, herri mugimenduak eta admi-nistrazio publikoa ondoan dituztela sentitu behar dute. ■



EDERFIL BECKER Koop. E.

Legerretako industrialdea, z/g

20250 Legorreta

Tel.: +34 943 80 71 50

www.ederfil.es

ENERGY of PEOPLE driving the future

